

# Norentzat da kalea?

## Gai honekin zerikusia duten arloak

- MATEMATIKA.
- NATUR ZIENTZIAK.
- GIZARTE ZIENTZIAK.
- HIZKUNTZA.

## HELBURUAK

- Kalearen diseinuaren eta bere erabilpenaren arteko erlazioa baloratzea.
- Gure herrian garraio publikoa nola erabiltzen den hausnartzea.
- Datuak biltzeko prozesua eta irudikatzen modua aztertzea.

## MATERIALAK

- ◆ Neurtzeko zinta.
- ◆ Boligrafoak edo arkatzak.

## Kalea aztertzen

Azter dezagun garraiobideek ikastetxearen inguruan duten eragina. Horretarako, inguruko kaleak ikertuko ditugu taldeka. (Adierazi metrotan neurri guztiak).

### Kaleen hedadura eta banaketa

Ikertzen ari garen kalearen izena.	Kale osoaren luze-zabala.	Autoentzako alde osoaren luze-zabala.	Oinezkoentzako espalioen luze-zabala (ezk. eta esk.).

### Kalearen erabilpena

5 minutuan igarotzen diren oinezkoak.	5 minutuan igarotzen diren autoak eta motorrak.	Garraiobide horietako bakoitzean batez beste doan lagun-kopurua.	Bost minutuan igarotzen diren tranbiak eta autobusak.	Garraiobide horietako bakoitzean batez beste doan lagun-kopurua.



Ohiko irudi bat: kotxe-gidariak Mundakako aratusteetan bildutako jendetzari erasotzen.

Lauki bakoitzeko datuak aztertutakoan:

- Egokia deritzozu kalearen banaketari?
- Aldatuko zenuke zer edo zer?
- Aipatu kale bakoitzean hauteman dituzuen arazoak:
  - Kutsadura atmosferikoa.
  - Zarata.
  - Energi xahuketa.
  - Estutasun sentazioa, leku-urritasuna.
  - Autoak espazio guztiaren jabe izatea.
  - ...
- Bada loturarik arazo horien eta kalearen diseinua eta erabilpenaren artean?
- Guztion artean, aztertu taldeek ateratako ondorioak.

## Zenbait datu


Taula honetan, lurralde historikoetako ibilgailu-kopuruak ageri dira (1999ko datuak).

### Ibilgailuak karrozeriaren arabera

	EUSKAL A.E.		ARABA		BIZKAIA		GIPIZKOA	
	Kopurua	%	Kopurua	%	Kopurua	%	Kopurua	%
GUZTIRA	1.023.127	100,0	158.402	100,0	521.762	100,0	342.963	100,0
Autoak	801.137	78,3	123.477	78,0	420.002	80,5	257.658	75,1
Motozikletak	48.320	4,7	5.543	3,5	20.028	3,8	22.749	6,6
Kamioiak	145.574	14,2	25.004	15,8	68.418	13,1	52.152	15,2
Autobusak	2.578	0,3	456	0,3	1.373	0,3	749	0,2
Traktore industrialak	7.257	0,7	1.231	0,8	3.067	0,6	2.959	0,9
Beste ibilgailu batzuk	18.261	1,8	2.691	1,7	8.874	1,7	6.696	2,0

1999tik hona, auto eta kamioien kopuruak igoera nabaria izan du.

Ondoko grafikoan, garraioak ingurumenean duen eragina islatzen duten ehunekoak aurkezten dira (1998ko datuak).



## Garraibideak aztertzen

Ikasleak taldeka arituko dira: herrian zenbat autobus-geltoki, hainbat talde egingo ditugu; geltoki gutxi badago, ordutegi-tarteen arabera antolatuko ditugu behaketa-saioak.

Taldeak antolatuta, geltokia dagoen kalera joango gara eta, toki zehatz batetik 20-30 minutuan igarotzen den auto kopurua zenbatuko dugu. Kopuru hori toki beretik eta denbora-tarte berean igaro den autobus-kopuruarekin erkatuko dugu.

Eta ikus zolitasuna ere landu beharko duzue, auto bakoitzean, gutxi gorabehera, zenbat lagun doan zenbatzeko.

Azkenik, ondorio gisa, autoan doazenek autobusa erabili izan balute zenbat auto gutxiago pasatuko ziren kalkulatu beharko duzue, bai eta autobusean zenbat lagun gehiago sar zitezkeen ere (lekua zeukan baten bat igaroz gero).

## Ondorioak ateratzen

Bildutako datuak kontuan hartuz, garraioek ingurumenen dituzten eraginaren gaineko ondorioak atera itzazue.



Garraio publikoa erabiltzeak on egiten dio ingurumenari eta hirietako bizi kalitatea hobetzen du.